

**BILAKA KOLEKTIBOAK BERE ZUZENDARI ARTISTIKOA xerkatzen du.
Zati denborako lanaldia (G/E)**

Bilaka kolektiboa Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren koreografia zentroa da. Gaur egun, hogeita hamar bat dantzari eta musikari biltzen ditu. Bilaka kolektiboa euskal dantzako estetika desberdinei idekia da; koreografo ezagunak edo talentu berriei emandako konfiantza eta elkarlanari esker sortzen dira produkzioak. Kandidatura honek, Bilaka-k bere proiektu artistikoa sendotzeko duen asmoarekin bat egiten du.

Bilaka kolektiboko batzorde artistikoarekin elkarlanean, hauek dira zuzendari artistikoaren misioak (G/E) :

- 60 000€-ko sorkuntza egitarau baten gauzatzea, 2017, 2018 eta 2019 urteentzat. Zehaztu beharrekoa :
 - begiztatutako koreografoak, eta beharrez, proiektuen edukia,
 - sorkuntza bakoitzarentzat aurreikusia den formatua : parte hartzaileen kopurua, eszena edo karrikako ikusgarriak...
- nortasun artistikoari dagozkion problematikei begira, partaide publikoekin edota hedabideen aitzinean, Bilaka kolektiboaren ordezkatzeara,
- Bilaka-ko gidaritzaren batzordea laguntzea, ikusgarrien ekoizpena ahalbidetzeko eta hedatzeko (hautatutako koreografoekiko harremanak, klase eta egonaldi artistikoen antolaketa...)

Molde praktikoak :

- karguaren iraupena : 3 urtekoa, 2017-ko urtarriletik goiti, urtero proiektuaren urteroko ebaluazioarekin.
- zuzendaritza artistikoaren misioaren ordainsaria : kandidatuaren proiektuaren aurkezpen egunean aipatuko da.

Zuzendariaren profila:

- euskal dantzaren munduaren ezagutza
- amatur zein profesionalen kultura sareen ezagutza
- ahalaz euskalduna

Kandidatura aurkezteko :

- Motibazio gutun bat, proiektu artistiko bat eta CV zehatz bat helbide horretara bidali :
Bilaka kolektiboa/ Koreografo zentroa Iparraldeko Dantzarien Biltzarra
Harri Xuri gela
64250 Luhoso
- Kandidatura bidaltzeko epemuga : 2016-ko abenduaren 31a.

Hautaketa Batzordearen osaketa :

Hautaketa batzordea Bilaka kolektiboko ordezkariez osatua izanen da, Iparraldeko Dantzarien Biltzarra, Euskal Kutur Erakundea eta Bilaka kolektiboko partaide publikoen ordezkariak lagundurik.

Bilaka kolektiboa
bilaka.kolektiboa@gmail.com
<http://www.bilaka.com>